



ATXILOKETARI AURRE EGINEZ

2.Zkia

A U R K I B I D E E A

1) SARRERA 3

2) INKOMUNIKAZIOA/GALDEKETAK 4

- A.- ATXILOKETA MOMENTUA:
- B.- POLIZIA-ETXE EDO KOARTELEAN:
- D.- AZKEN EGUNA eta EPAITEGIRAKO BIDAIA:
- E.- EPAILEAREN AURREAN:
- F. - ESPETXEAN:

3) GALDERAK 13

4) KIDEEEN TESTIGANTZAK 21

5) ERANSKINA-(ATXILOKETA GIDOIA) 37

SARRERA

Eskuetan dugun bigarren lantxo honek, aurrekoaren gisan, atxiloketa eta inkomunikazio egoera baten aurrean ahalik eta prestatuen egon ahal izatea du helburu, atxiloketa eta inkomunikazio egoerei buruzko ahalik eta informazio gehien ukaiteak berorri aurre egiteko oso baliagarria baita. Argi dago atxiloketa bakoitza ezberdina dela, hots, bere berezitasunak dituela eta pertsona bakoitzak modu ezberdinez bizitzen duela, baina badaude guztietan komunak diren ezaugarriak, azken finean, etsaiaren helburua berbera baita "Guardia Civil" izan, "Cuerpo Nacional de Policia", "Gendarmerie", "Police Judiciaire" ala "Ertzaintza" izan: atxilotuarengandik ahalik eta informazio gehien lortzea.

Gure helburua beraz, **gugandik informaziorik lortu ez dezatela eta batez ere atxilotetari ahalik eta prestatuen aurre egitea** izanik, lantxo hau horretarako baliagarria izan dadila espero dugu. Liburuxkaren oinarria aurreko edizioaren berbera izanik, bahituak izan diren burkide gehiagoren ekarpenez osatu ahal izan dugu lau ataletan banatu dugun bigarren lan hau:

- 1.- Inkomunikazioa/ Galdeketak
- 2.- Galderak
- 4.- Burkideen testigantzak
- 5.- Eranskina = Atxiloketa Txostena – gidoia

Oharra: Gogora arazi nahi dugu liburuxka hau ez dela behin betirako zerbaiten gisa hartu behar, guztion oharpenekin aberastu beharreko zeregin gisa baizik. Beraz, ikusten dituzuen akats eta hobekuntza aukerak jakinarazi





- Bestalde, akusazioak ukatu edota ez duzula deklaratu esan ostean, tortura salaketa jarri dezakezu bertan. Torturak salatu eta egin dizutenaren berri eman, salaketan azaldu dadin.

- Oso garrantzitsua da epailearen aurrean deklaraziorik ez egitea. Ameskaiztoa bukatu da, beraz, ez pentsa etsaien esku utziko zaituztetela berriz edota komisaldegian egin dizuten txantai edo mehatxuren bat beteko dutela; guzti hori gezurra da. Epailearen aurretik pasa ondoren espetxera eramango zaituzte eta hasierako egun edo egunak "Ingresos"-eko moduluan egon eta gero, normalean beste kide batzuekin jarriko zaituzte.

- Frantziako "Palais de Justice" gaudela segituan konturatuko gara. Eta denbora bat kalabozoetan izan ondoren epailearen aurrera eramango gaituzte lur azpiko pasadizoetatik joanez eta eskailera anitz igota.

F.- ESPETXEAN:

- Ezer baino lehen aipatu behar dugu, aurreko azalpen eta aholkuak atxilotetari ahalik eta prestatuen aurre egitea dutela helburu, baina badakigu komisaldegiko egonaldi asko oso gogorrak direla eta beraz, jakin behar dugu ere, saiakera eta ahalegin guztiak eginda ere etsaiak nahi zuena esan baldin badugu, pertsonak garelako azken finean eta egoera horretan etsaien aurrean hitz egin duen kide bati inoiz ez zaiola hitz egin izana aurpegira- tuko.

- Bestalde, berebiziko garrantzia dauka atxiloteta edo inkomunikazio egoera horretatik "garaipen" sentipen batekin ateratzea espetxealdia indartsu hasteko garaian. Komisaldegitik garaipen "txiki" batzuekin atera izana oso garrantzitsua izango da. Garaipen sentipen horiek, hitz egin duguna eta ez dugunaren arabera izan daiteke, baina hitz eginda ere, inkomunikazio egoerari aurre egiteko izan dugun jarreraren arabera izango da ere. Lanaren zehar behin baino gehiagotan aipatu dugun "psikologikoki erabat ez haustearena".

- Espetxean sartu eta bertako kideekin eta Erakundea berarekin izango dugun harremanak asko lagunduko digu egoera berri horretan, pasatutakoak gainditzeko eta espetxealdiari aurre egiteko.

- Azkenik esan, espetxean sartu bezain laster, berebiziko garrantzia daukala atxilotetaren nondik norakoak ("Atxiloteta Txostena") helaraztea (ikus eranskina).



GALDERAK

Atxiloteta eta inkomunikazio egoeraren nondik norakoak azaldu ditugunean, galdeketa berak azaltzen genituen, guztia batera baitoa. Halere, galdeketa egiteko modua baino, puntu honetan, etsaiek lortu nahi duten informazioa azaltzen saiatuko gara, modu orokor batez, egiten dituzten galderak jarraituz. Horren arabera, konturatuko baikara norainoko zehaztasunak eskatzen dituzten eta beraz, zein galdera motei aurre egin behar diegun.

Esan beharra dago gure bizitza militante GUZTIAREN berri izan nahiko dutela, Erakunderako kaptazioa burutzen denetik, atxilotua izan garen arte. Lehenik, normalean, atxilotetaren arabera (kasualitatez eman bada, aspaldiko jarraipenengatik, aurreko atxilotu batek gure izena emanagatik etab...) galderak burutuko dituzte: Taldeko partaideen izenak, taldearen izena, azpiegituraren ingurukoak (non daude pisuak, non daude garajeak, non daude armak etab...). Atxiloteta bakoitzaren arabera galdera batzuekin edo besteekin hasiko dira, baina beti, lehenago ala beranduago, gure bizitza militantearen kronologia zehatza atera arazten saiatuko dira. Pertsonaren arabera, era bateko edo besteko galde- rak egingo dituzte (adibidez, "legal" bati ez diote galdetuko Herrerako egonaldiaz eta aldiz "ilegal" bat horrekin matxakatuko dute), baina guk guztiak nahastuko ditugu, bakoitzak dagozkion galderak hausnartu beharko dituelarik:

"Legal" garaia:

Kaptazioa:

- Noiz izan zen, nola eta non?
- Nork eman zizun gutuna? ([gutunontzian jaso genuela ez badute sinisten, izen bat lortu asmoz matxakatuko gaituzte](#)).
- Eskuz ala ordenagailuz idatzita zegoen?
- Gutunazal batekin ala gabe?
- Nolakoa zen gutunazala? Kolorea?
- Zer jartzen zuen gutunazalean? Aurrekaldean? Atzekaldean?
- Nork sinatzen zuen gutuna?
- Erakundearen zigilua bazeraman, orri fotokopiatua zen ala originala?
- Zer jartzen zuen gutunean? Agurra, testua, bukaera...
- Bertan hitzordu bat al zetorren? Bertako hutsuneak eskuz beteak ala ordanagailuz?
- Hitzordurako mapa, fotokopiatua edo nola?

Hortik aurrera:

- Zein "lan" mota egiten hasi zinen? ([Ekintza Talde bateko partaide, informazio lanketa etab...](#))
- Taldearen izena? Partaideen izenak? Laguntzaileen izenak? Ezizenak?
- Zure arduraduna nor zen?
- Nola jartzen zineten kontaktuan? Zein maiztasunarekin?

